

2005EKO AZAROAREN 16KO TOKIKO GOBERNU BATZARRA

Lazkaoko Udaletxean, bi mila eta bosteko azaroaren hamaseian, iluntzeko zazpitan, Lazkaoko Udaleko Tokiko Gobernu Batzarra biltzen da, aurrez honetarako deialdia egin delarik, Felix Urkola Iriarte Alkatearen lehendakaritzapean. Bertaratutako zinegotziak honako hauek dira: Xanet Barreras Jauregi eta Arantxa Zumelaga Agirre.

Igor Sarriegi Zumarraga eta Inazio Estensoro Eskisabel zinegotziak ez dira bertaratu.

Idazkari lanetan Iñaki Eskisabel Zurutuzak dihardu.

I.- AURREKO AKTA.-

Alkateak bilkurari hasera eman ondoren, bertaratutakoen onespenera aurkezten da 2005eko urriaren 13an egindako bilkurako akta, idatzita dagoen moduan onartzen delarik.

II.- FAKTURAK.-

Ondoren Udaletxera azkenaldi honetan etorri diren fakturak aztertzen dira. Aztertu ondoren 2005eko ekitaldiko aurrekontuari dagokion 9 zbk.dun fakturen zerrenda, ~~EHUN~~ ETA LAUROGEITA HEMEZORTZI MILA EHUN ETA HIRUROGEITA HAMABOST euro eta LAU zentimo (198.175,04 €)takoa onartu eta ordaintzea erabakitzen da.

III.- GIZARTE ZERBITZUETAKO LAGUNTZAK.-

Gizarte Zerbitzuetako Batzordeak aurkeztutako proposamena aztertu ondoren, Gobernu Batzordeak honako erabaki hauek hartzen ditu:

Etxeko Laguntza Zerbitzua.-

- 133 zbk.dun esped.: Elkarbizitza unitatearen aldaketen ondorioz etxeko laguntza zerbitzua murriztea, 2005eko azaroaren 7tik aurrera, astean 6 egun eta eguneko 3 orduatik astean 5 egun eta eguneko 1,5 ordutara. Onuradunaren ekarpena zerbitzu kostuaren %8a izango da.

- 523 zbk.dun esped.: zerbitzua gehitzea, astean 5 egun eta egunean 2 ordutik astean 6 egun eta egunean 3 ordura. Onuradunaren ekarpena zerbitzu kostuaren %15ekoa izango da.

- 207 zbk.dun esped.: zerbitzua ematea astean 6 egun eta egunean 1,5 ordu. Onuradunaren ekarpena zerbitzu kostuaren %3a izango da.

Gizarte Larrialdietarako laguntzak.-

- 722 zbk.dun esped.: etxebizitzaren alokairua ordaintzeko hilean 127,05 euro ematea, azaroan eta abenduan. Ematen zaiona eskatutakoaren %55a da.

Telealarma.-

- 679 zbk.dun esped.: telealarmaren instalakuntzarako 52,10 euro eta bere mantenimendurako urtean 55,5 euro ematea. Ematen zaiona eskatutakoaren %75a da.

IV.- KIROLETAKO DIRULAGUNTZAK.-

Josetxo Imazen Oroimenezko Lasterketa.-

Iñaki Imazek, Txindoki Atletismo Taldearen izenean, "Josetxo Imazen Oroimenezko V. Lasterketa"rako eginiko dirulaguntza eskaera ikusirik eta eskari honen aurrean udalaren kirol batzordeak dirulaguntza ematearen aldeko proposamenaren aurrean, Tokiko Gobernu Batzarrak, bertaratutako guztien aldeko botuekin 707 eurotako dirulaguntza ematea onartzen du.

Udalerriko kirol elkarteei dirulaguntzak.-

2005eko ekitaldiengatik udalerriko kirol taldeei ematekoak diren dirulaguntzen inguruan udalaren kirol batzordeak egindako proposamenaren aurrean, Tokiko Gobernu Batzarrak, bertaratutako bere partaide guztien aldeko botuekin, honako dirulaguntza hauek ematea onartzen du:

<u>KIROL TALDEA</u>	<u>DIRULAGUNTZA</u>
Futbol taldea	5.262 €
Pelota taldea	3.398 €
Igeriketa taldea	653 €
Areto futbol gizonekoena	1.097 €
Xake taldea	239 €
Atletismo taldea	1.312 €
Mendi taldea	1.321 €
Ñañarri waterpolo taldea	529 €
GUZTIRA	13.811 €

V.- KULTURAKO DIRULAGUNTZAK.-

Udalerriko kultur elkarteei dirulaguntzak.-

2005eko ekitaldiengatik herriko kultur taldeei ematekoak diren dirulaguntzen inguruan udalaren kultur batzordeak egindako proposamenaren aurrean, Tokiko Gobernu Batzarrak, bertaratutako bere partaide guztien aldeko botuekin, honako dirulaguntza hauek ematea onartzen du:

KULTUR TALDEA	DIRULAGUNTZA
Antzar Gazteak	2.263,28 €
Goierriko Euskal Eskola	531,00 €
Lazkao abezbatza	766,00 €
Oin Arin	1.529,63 €
Ansoategi	1.800,00 €
Txistulariak	620,00 €
Azki	441,00 €
Monja Zistertarrak	360,00 €
Cantata abesbatza (lehen Xanbe)	600,00 €
GUZTIRA	8.910,91 €

Udalerrikoak ez diren kultur taldeei dirulaguntzak.-

Jarraian eta udalerrikoak ez diren kultur taldeei ematekoak diren dirulaguntzei dagokionean, honako dirulaguntza hauek ematea onartzen da, bertaratutako guztien aldeko botuekin:

Argi Berri bertso eskolari hiruehun (300,-) euro; Goierriko Hitza egunkariari, biztanleko 2 euro, hau da, 2 euro bider 5.114 biztanle, hamar mila berrehun eta hogeita zortzi (10.228,-) euro ematea.

VI.- BILERAREN AMAIERA.-

Eta eztabaidatzeko beste gairik ez dagoenez, Alkateak bilera amaitutzat jotzen du, iluntzeko zazpiak eta hogeita bost direnean nik, Idazkariak, guztiaren akta jaso eta ziurtatzen dudalarik.